

8. Funtsezko jarduerak

Gure enpresaren funtsezko jarduera zerbitzu bat ematea da, hau da, enpresa txikizkari bat da, guk diseinatutako dutxa programatuak diseinatzeko, ekoizteko eta entregatzeko betekizunak dituen.

Hala ere, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea eta online denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera ere. Izan ere, gure produktuaren marketina egiteko ezinbestekoak izango dira online publizitatea eta beste enpresa batzuekin ditugun harremanak. Adibidez, komuneko altzariak saldu eta jartzen dituen enprekin egindako akordioek gure enpresa ezagutarazteko eta zabaltzeko aukera emango digu.

Beste programa batzuen esku utz daitezkeen jarduerak honako hauek izango lirateke: gure enpresak duen berezitasuna ura kontrolatzeko programa da, beraz, horretaz arduratu beharko gara pertsonalki.

Baina badaude beste zenbait jarduera beste enpresa batzuk burutuko dituztenak, adibidez, guk diseinatutako dutxa enpresa profesionali ekoizteko ardura utziko diegu eta gu diseinuaz gain etxeetan ipintzeko zerbitzua emango dugu.